

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eramateko lagunduko diguten elkarteak zeregin oso garrantzitsua izango dute. Beraien laguntzarekin gure proiektua pixkanaka eraikitzeke aukera izango dugu. Zuzendaria gure enpresaren irudia da, eta aliantzak eta kontaktuak sortzeko eta beraiekin akordioetara iristeko rola izango du.

Gure App-ak eta webguneak funtzionatzeko Lurraldebus eta Renfe enpresak dira gure produkturako aliantzarik garrantzitsuenak, bestela ezinezkoa izango baita proiektua aurrera eramatea. Azken finean, haiek emango digute baimena beraien garraioetan gure GPS-ak jartzeko eta gure zerbitzuarekin sinkronizatzeko.

GPS-ak merkatu Txinatarrean erosiko ditugu [Alibaba.com](https://www.alibaba.com) webgunean, azkenean merkatu Txinatarrean GPS-ak merkeagoak dira eta horrela gure enpresaren gastuak txikiagoak izango lirateke.



Bestalde, lokal bat edukiko dugu, bulego bezala erabiliko duguna. Horretarako, gure herriko, Urretxu-Zumarragako, Uggasa enpresarekin jarriko gara harremanetan, enpresa honen bidez lokala alokatuko dugu, orokorrean, lokalen prezioa oso garestia delako. Lehen bi urteetan Uggasak lokala utziko digu, Uggasa Urola Garaiko Garapenerako Agentzia da. Hauek, Urola garaiko herrietako ekintzaile berriei laguntzen diete lokal bat merke eskaintzen; hilabetero, 90€ ordainduz lokal bat edukitzeko aukera duzu eta lokalarekin batera ura, argindarra, alokairua eta wifia.

Beste enpresek, gure idea kopia ez dezaten, gure produktua patentatuta egongo da, eta egile-eskubideak edukiko ditu. Hori gure informatikariak egingo du.

Nahiz eta guk gure dirua jarri enpresak aurrera egiteko, bankuari mailegu bat eskatuko diogu; honela, hasierako inbertsio bat egin ahalko dugu eta oso lagungarria izango da proiektu hau hasteko. Laboral Kutxaren bidez lortuko dugu mailegua, interes baxuenak eta eskaintza interesgarrienak dituen banketxea delako. Horrez gain, SEPEri laguntza eskatzea pentsatu dugu. Zehazki, langabezia-prestazioaren ordainketa bakarra edo kapitalizazioa erabiliko dugu. Aukera honek, aukera ematen digu pilatuta daukagun langabezia-sari osoa kolpe batetik jasotzeko, baldin eta diru hori enpresa berri baten gastuetarako erabiltzen badugu. Diru-laguntza honen kopurua bakoitzak metatuta daukan prestazioaren arabera izango da.

SEPEren bide hau hautatu dugu gure proiektua finantzatzeko modu segurua delako, kanpoko maileguen menpe egon gabe hasierako gastu handiei aurre egiteko aukera ematen

digulako. Diru hau jasotzeko, negozio-plan bideragarri bat aurkeztuko dugu, gure aplikazioak Gipuzkoako mugikortasunean izango duen onura azalduz.

Gure aplikazioa zabaltzeko Gipuzkoar Influencer batzuekin harremanetan jarriko gara, diru kantitate baten truke beraien sare sozialetan gure aplikazioa erakusteko eta funtzinamendua azaltzeko. Horrela, gure bezero potentzialetara errazago iritsiko gara, hau da, nerabeak, ikasleak, langileak eta batzuetan pertsona helduak.

